

Gurasoei gutuna

Zilborrestea aspaldi etenarazi zidaten zugandik, ama, bat-batean, goxo-goxo eta babespean nengoela zure barnean. Zu eta biok bakarrik erditu ginen, aita itxarongelan zegoela.

Geroztik bi eskuetan margoak hartuz koloreztatu nahi izan dut mundu hau neure ere egiteko, eta gero axota ezarri zenidan, aita, eskuin eskuan, mundu honetan neure bizitza idazten hasteko zuzen eta artez.

Neure bizitzan etapak egon dira: haurtzaroan babestu eta zaindu ninduzuen, oso haur barnerakoi eta herabea nintzelako, eta gerora nerabezaroan maitatu ninduzuen nahiz eta nik horretan askorik ez lagundu, gogorra izan baitzen haurtzaroarekin etetea.

Helduaro bide luze eta malkartsuan gaizki-ulertu eta haserre batzuk izan ditugun arren, maitasunezko besarkada inoiz ez zait falta izan zuen aldetik.

Zilborrestea eten nuen, eta beti behar izan zaituztet, baina behar bazaituztet ere, badakit neure bidea egiten segitu behar dudala; badakit beti nirekin izango zaitudala zeruan, aita, eta badakit oraindik zaitudala hemen lurrian, ama.

Beharbada ni ama izan arte ez dut jakingo zenbat poza eta pena sorrarazi dizuedan, beharbada eta seguru Laura Mintegik arrazoi duela hala sentitzen dudalako neuk ere, ez dudala jakingo zu ulertzen, ama, ni ama izan arte eta nire nahi bakarra alaba zoriontsu izatea dela ulertu arte.

Barkatu eta sentitzen dut pena eta sufrimendu guztia, eta eskerrik asko poz eta maitasun guztiagatik. Askok maite zaituztet.

Hizki mutua